

HNIBBILO

Haurrak eta nerabeak
indarkeriaren aurrean modu
integralean babesteko Lege
Organikoa

Euskadin antolatutako
kirolean lege berria ezartzeko
sarrera-gida



AURKIBIDEA

Or.

01	HNIBBILO: DEFINIZIOA ETA HELBURUAK	3
02	ABIAPUNTU KONTZEPTUALAK	5
	Zer da adingabekoen aurkako indarkeria?	6
	Adingabekoen aurkako indarkeria motak kirolean	7
	Zer hartzen dugu babes-ingurune segurutzat?	8
03	INDARKERIAREN NORMALIZAZIOA	9
	Zergatik garatu behar dira adingabekoak babesteko protokoloak Euskadiko kirolean?	10
04	EUSKADIN ANTOLATUTAKO KIROLERAKO HELBURUAK	12
05	NOLA LORTU HELBURUAK EUSKADIN ANTOLATUTAKO KIROLEAN?	15
	Prestakuntza	16
	Adingabekoak babesteko ordezkaria	17
	Erakundeek HNIBBILO aplikatzeko lehen pausuak	18
	Laguntza eta baliabideak	19
06	BARNE-ZABALKUNDERAKO KANPAINA	20

01

HNIBBILO:

Definizioa eta helburuak



02

ABIAPUNTO KONTZEPTUALAK



Zer da adingabekoen aurkako indarkeria?

Parekotasunik gabeko harremanetan botere-abusu baten ondorioz sortzen den giza eskubideen urraketa.

Kalte fisikoaren eta intentzionalaren forma esplizituenak nahiz kalte ez-fisikoak edo/ eta ez-intentzionalak barneratzen ditu.

(Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia, 15. or.)

Ekintza, ez-egite edo tratu axolagabe oro, baldin eta:

Adingabekoen eskubideak eta ongizatea **urratzen** baditu

Adingabekoen garapen fisikoa, psikikoa edo soziala **arriskuan jartzen** edo **eragozten** baditu

(8/2021 Lege Organikoa)

Adingabekoen aurkako indarkeria motak kirolean

1. Nork bere buruari eragindako indarkeria

Suizidioa, buruaz beste egiteko saiakerak edo ideiak, auto-lesioak, elikadura-nahasmenduak, auto-inposatutako gain-entrenamendua...

2. Pertsonen arteko indarkeria

Indarkeria psikologikoa: Umiliazioak, itxurari buruzko kritika, alde batera uztea edo baztertzea, ahaleginak ez goraiatzea, hitzeko mehatxuak edo abusuak, maila irrealetan errendimendua emateko obligazioa...

Indarkeria fisikoa: Ariketa fisikoa egitera behartu zigor gisa, hastapen-errituak egitera behartu, osagarri bitaminikoak hartzera behartu, min hartuta egonda modu behartuan entrenatzea edo lehiatzea, eraso fisikoa...

Sexu-indarkeria kontakturik gabe: sexu-iruzkinak edo -begiradak; irudi sexualak ikustera, sortzera edo partekatzera behartu; erantzera behartu, exhibizionismoa aurrez-aurre edo online, sexu-jolasak edo hastapen-errituak kontakturik gabe...

Sexu-indarkeria kontaktuarekin: musu ematea, zirriak egitea, kontaktu genitala, ahozko sexua, penetrazioa edo sexu-hastapeneko erritu behartuak

3. Testuinguruko indarkeria

(araugintzako eta egiturazko indarkeria)

Generoaren edo adinaren arabera aurrekontu desberdinak egotea, adingabeak babesteko araudirik ez edukitzea, prestakuntza- edo sentsibilizazio-kanpainarik ez egotea, instalazio desegokiak, hasiberriei iseka egitearen kultura, adingabekoei ezkutuko kontratuak egitea, adingabeen salerosketa...

Zer hartzen dugu babes-ingurune segurutzat?

Tratu psikologiko eta emozional ona

Indarkeriarik, abusurik edo esplotaziorik gabe

Giza eskubideei errespetua

Adingabekoak, eskubidedun subjektuak

Haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen 1989ko konbentzioa

Adingabeen interes gorenaren zerbitzura dauden helduak

Ondorengoak dauzkaten klubak eta erakundeak:

Araudi propioa

Protokoloa

Aholkularitza

Jokabide-gida

Profil egokiak kontratatzea

Prestakuntza, komunikazioa, erantzunkidetasuna sustatzea

Beste erakunde batzuekiko lankidetzatza

Monitorizazioa eta ebaluazioa


03

INDARKERIAREN NORMALIZAZIOA:

Zergatik garatu behar dira
adingabekoak babesteko
protokoloak Euskadiko
kirolean?



CASES ikerlanaren emaitzak:



Nola izan daiteke esperientzia bat ona edo oso ona indarkeria tasa horiekin?

Indarkeriazko jarrera asko asimilatuta eta normalizatuta dauzkagu

Orain arte kasu gehienetan modu informalean, borondatezkoan eta batzuetan baita inkontzientean ere babestu dira adingabeak kirolean. HNIBBILO babes hori formalizatzeraz eta sistematizatzeraz dator.

Normalizatutako indarkeriazko jarrerak

**POTROAK
JARRI
BEHAR DIRA!**

**★ Ze ondo
geratzen zaizun
uniformea, ★
Nekane,
primeran zaude*

**2 jaurtiketa
libre jarraian
huts egiten
duenak 20
itzuli emango
dizkio kantzari**


**KORRIKA
EGITEAREKIN
BAKARRIK
EZ DU BALIO,
EZ DIOZU
EMATEN EZTA
BALDE BATI
ERE!**

**TIRA, AMAK
EMATEN DUZUE
DEFENDATZEN-ETA!**

04

EUSKADIN ANTOLATUTAKO KIROLERA KO HELBURUAK

Erantzunkidetasunezko
begirada landu



Euskadin antolatutako kirolerako helburuak

Erantzunkidetasunezko begirada bat lantzea, adingabekoentzat babes-ingurune segurua eraikitzeko:

Kirol-erakundeak / federazioak
Administrazio publikoa
Kirol arloko profesionalak
Familiak
Eragile ekonomiko eta sozialak
Komunikabideak
Gizarte osoa

Erantzunkidetasuna




Adingabekoak zaintzeko inplikazioa eta araudiak ezagutzea

Indarkeriazko jarreraren aurrean permisibitatea desagertzea ahalbidetuko duen aldaketa kulturala eragitea



Elkar-zaintzeko sarea sortzea



05

NOLA LORTU HELBURUAK EUSKADIN ANTOLATUTAKO KIROLEAN?



Kirol Eskolaren bitartez





Adingabeekin lan egiten duten kirol-eragileentzako prestakuntza:

Adingabeen zaintzarekiko sentsibilizazioa

Erakunde bakoitzeko adingabeak babesteko ordezkariarentzako prestakuntza:

Adingabeak babesteko protokoloa

Online prestakuntzetara sartu [hemen click eginda](#)



Adingabekoak babesteko ordezkaria, funtsezkoa

Profila:

Liderra, motibatua, erreferentziala, kluba ezagutzen duena, egunerokoan presente dagoena

Pertsona multzo hauekin jardungo du

Adingabeak
Familiak-tutoreak
Entrenatzaileak
Epaileak
Osasun-langileak (medikua, fisioa, psikologoa...)
Zuzendaritza batzordeak

Kirolaren esparruan ematen diren hiru indarkeria motak lantzen ditu

Nork **bere buruari** eragindako indarkeria
Pertsonen arteko indarkeria
Testuinguruko indarkeria (araugintzako eta egiturazko indarkeria)

Hiru esparrutan lan egiten du

Prebentzioa (prestakuntza, sentsibilizazioa, dibulgazioa, komunikazioa, parte-hartzea, sexu-izaerako delituen ziurtagiri eguneratuak eskatzea, etab...)

Detekzio goiztiarra (kontzientzia hartzeko galdera kritikoen zerrenda)

Esku-hartzea (entrenatzaileekin eta beste ordezkari batzuekin komunikazioa, Zure taldekoak gara, aholkularitza, salaketa...)

Lanak

Protokoloa: erakunde, jarduera eta gizarte-ingurunera egokitu daiteke; hedatu eta betearazi

Monitorizazio-sistema bat ezartzea

Komunikazioa: erakunde barruko eta kanpoko eragileekin harremanak sustatzea eta sendotzea

Edozein diskriminazio-mota saihesteko **neurriak**

Erakundeek HNIBBILO aplikatzeko lehen pausuak

Adingabekoak babesteko ordezkaria **hautatzea**



Erakundearen **autodiagnostikoa**, HNIBBILOaren exijentziei dagokienez



Adingabekoeekin harreman zuzena duten pertsonei **Sexu-izaerako Delituen Ziurtagiri** eguneratua eskatzea



Urteko sentsibilizazio-, komunikazio- eta trebakuntza-plan bat **diseinatzea eta implementatzea**



Aldizkako kontrol-bilerak egitea eta garrantzizko informazio guztia erregistratzea



Lankidetzeta-sareak sustatzea eta ehuntzea



Esperientziak partekatzeko **topaketetan parte hartzea**



Kirol-erakundeen eta kirol-arloko profesionalen eskura dauden laguntza eta baliabideak



Kirol Eskola

Kirol-erakundeentzako eta adingabekoak babesteko ordezkarietarako prestakuntza

[Web Kirol Eskola](#)



Zain

HNIBBILOren protokoloak abian jartzeko kirol-erakundeei laguntza ematea

[Web Zain](#)



Zure taldekoak gara

Kirolean adingabekoen aurkako indarkeria-kasuetan salaketa edo aholkularitza

[Web Zure Taldekoak Gara](#)



Zeuk esan

Adingabekoei arreta emateko telefonoa

[Web Zeuk Esan](#)

06

BARNE-ZABALKUNDERAKO KANPAINA

Irabaztea ala parte hartzea



Barne-zabalkunderako kanpaina

Eusko Jaurlaritzako eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Kirol Zuzendaritzek komunikazio kanpaina bat sortu dute kirol erakundeei, Zuzendaritza batzordeei, teknikariei, profesionalei eta adingabeok babesteko ordezkari zuzendutakoa.

Kanpainak **hiru fase** izango ditu, eta honako helburu hauek ditu:

Euskadin antolatutako kirolean adingabeentzako babes-ingurune segurua sortzeko erantzunkidetasun-begirada lantzearen garrantziaz sentsibilizatzea (elkar-zaintzeko sarea)

Indarkeriazko jarreraren aurrean permisibitatea desagertzea ahalbidetuko duen kultura-aldaketa sustatzea

Aurrera-pausua derrigortasunagatik ez ematea, baizik eta kontzientzia hartzeko prozesu baten ondorio gisa.

Federazio edo kirol-erakunde bakoitzak profesionalen artean kanpainari ematen dion zabalkunde orok helburuak lortzen lagunduko du.

Irabaztea ala parte hartzea

Kanpainan aspaldiko hautua planteatzen da: zer den garrantzitsuena, **irabaztea ala parte hartzea**. Eta gehien interesatzen zaigun moduan ebazten da. Kirol-erakundeek eta adingabekoen babeserako ordezkariak prestakuntza-ikastaroetan parte hartuko dute eta kirolariak, irabazi. **Konfiantzan, segurtasunean eta autoestimuan** irabaziko dute. Haurrek eta nerabeek eskatzen digute parte hartzeko, haiek irabaz dezaten.



Federazioen eta kirol-erakundeen eskura jarriko dira kanpainaren arte grafikoak, **mailing**-en, **sare sozialen**, **kartelen** eta abarren bidez zabaltzeko.



